

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Errezil

Aurkibidea

Udalerria: Errezil

Sarrera



Gipuzkoako Urola-Erdia eskualdeko udalerria da. Udalerriak hirigune txiki bat du eta bost auzo nagusi, gehienbat haranaren luzeran kokatuak: Artzalluz, Erdoizta, Ezama, Ibarbia eta Letea. Argisain edo Santa Marina udalerriko mugetatik haratago dago. Herri hauek ditu mugakide: Zestoa eta Aia iparraldean; Asteasu, Larraul, Bidania-Goiatz eta Albiztur ekialdean; Beizama hegoaldean; eta Azpeitia hegoaldean. Argisain enklabeak mugak ditu Legorreta, Bidania-Goiatz, Albiztur eta Beizama herrieekin.

- **Biztanleak:** 606
- **Euskaldunak:** %90,28

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **32**
- Zintak: **37**
- Pasarteak: **151**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **3**
- Bideoak: **105**

Proiektuak

- Atala Kultur Taldea: 'Gari-lanak Errezilen'
- Atala Kultur Taldea: 'Ibarbia sagarra: izan zena, badena eta izango dena'
- Azpeitiko ahotsak
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Fondo partikularrak
- Herri Irratia
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Basilio Agirretxe Lasa (1924)



Errezilgo Bitartea baserrian jaioa, "Galarraga" bezala ezagunagoa. Gurasoak bertakoak zituen. 11 senide ziren, horietako bederatzi mutilak. Azpeitiko Elosiaga auzoko eskolan ibili zen Basilio. 11 urterekin, Gabiriko seminaria eraman zuten, baina etxera joan zen ihesi; ondoren, anaia eta biak Hernaniko Jauregi baserrian egon ziren morroi osabarekin, lau urtean. Beizamara joan zen gero, arreba hara ezkondu baitzen. Afrikan egin zuen soldadutza, eta pertika jaurtitzen gailendu zen han. Gero Igeldoko ganadutegi batean, Asteasuko harrobian eta Eibarko 'Aurrera' fundizioan egin zuen lan. Okin lanbidea ikasi, eta Eibarren, Arrasaten eta Zarautzen jardun zuen ogia egiten. Orioko emakume batekin ezkondu zen; Irunen ile-apaindegia zuen hark, eta Irunera joan ziren bizitzera. Hiru alaba izan zituzten. Hendaiako bi okindegitan egin zuen lana, eta, gero, denda jarri zuen San Martzial kalean: 'Comestibles BG'. Iruñea inguruan ere bizi izan da; alargundu ondoren, bigarren aldiz ezkondu zen.

Benito Aierza Otegi

Joxe Antonio Aizpuru Isuzkiza

Patxi Astigarraga Aburuza (1934)



Errezilgo "Angun" (Aranguren) baserrian jaio zen 1934an. Ama bertakoa zuen, eta aita Mugarritta baserrikoa. Eskolan Errezilen ibili zen, zazpi urterekin hasita; eta gau-eskolan ere ibili zen. 17 urte zituela Olitera (Nafarroa) joan zen erdaraz ikastera, eta urtebete egin zuen bertan. Azokara baserriko jeneroa saltzera joan ohi zen Azpeitira eta Tolosara. Afrikako gerran soldadu ibilia da. Osaba txistularia zuen, eta harekin aritzen zen danborra jotzen. Errezilgo Igurtegiko [Ignacia](#)rekin ezkondu zen.

Jose Inazio Azpillaga Aldalur (1937)



Errezilgo Añõia baserrian jaio zen. Gurasoak ere Errezilgoak zituen: aita bertakoa eta ama, berriz, Landarrain baserrikoa. Bost anai-arreba ziren, hiru mutil eta bi neska. 10 urtera arte ibili zen Errezilgo eskolan. Soldadutza Donostian egin zuen, eta instrukzioak Artederretan (Nafarroa). Basogintzan, altzarigintzan... ibilia da lanean. 28 urterekin, Azpeitiko Odriozolatxo baserrira ezkondu zen, eta bertan bizi izan da. Gaztetatik izan du bertsotarako afizioa.

Jose Mari Azpillaga Aldalur (1934)



Errezilgo Lete auzoko Añõia baserrian jaio eta bertan bizi izan da beti. Gurasoak eta aitona-amonak ere Errezilgoak zituen. Baserritarra da, eta ondo ezagutzen ditu baserriko eta Errezilgo kontuak. Elkarriketan herri-kirolak eta apustuak ere aipatu ditu. Emaztea Orexakoa dauka. Elkarriketan, bere iloba Josu Azpillaga ere azaltzen da.

Luis Bereziartua Zabala (1929)



Errezilgo Bustinzuri baserrian jaio zen. Zazpi senideko familian bigarrena da Luis. Umetako ikasketak Errezilen egin zituen, eta, gero, Tuterara bidali zuten hango jesuitekin ikastera. Soldadutza egin aurretik morroi ibili zen urte eta erdiz Urrestilla bideko Aginetxe baserrian. Irunen egin zuen soldadutza, eta, hura bukatu ondoren, denbora batez Beizaman morroi lanetan aritu zen. 11 urte egin zituen baxurako arrantzan lanean; eta, itsasoan lana gutxituta, eraikuntzan jardun zen 21 urtez. Aizarnazabalgo [Mari Kruz Sagarnarekin](#) ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Antonio Maria Eizmendi Goenaga Loidisaletxe (1913-1990)

Errezilgo Loidisaletxe baserrian jaio zen. Bere aita, aitona eta anaia ere bertsolariak izan ziren, eta tradizioak bere semearekin jarraitzen du, 'Loidisaletxe II'-arekin.

Maria Francisca Elustondo Arozena


Joxe Etxenagusia (1922)

Errezilen jaioa, Odria baserrian, bertan bizi izan zen 17 urtez, eta geroago beste 3 urtez Getarian. Errezilera itzuli eta ezkondu egin zen. Gerra garaian, soldadu ibiltzea egokitu zitzaion, eta Nafarroa aldean igaro zuen garai bat. Bere emaztea, Miren Etxabe, Zumaiaiko alaba.

Joxe Manuel Etxenagusia Agote

Odriberri baserrikoa.

Fuljentzia Ezama Izeta (1921)



Errezilen jaioa. Gurasoak ere bertakoak zituen. Zazpi senide ziren. Errezilgo eskolan hasi zen, baina gero Tolosako moja jesuitinen ikastetxean ibili zen, bi urtez. Hantxe ikasi zuen erdaraz. Anaiak mantekila-lantegia zeukan, eta harekin egin zuen lana bueltan. Etxean, pentsu-biltegia eta janari-denda ere bazituzten. Donostiako Añorgatxiki auzora ezkondu zen, Andres Ormazabalekin.

Maria Angeles Galarraga

Marijone Galarraga Labaka

Enrike Galarraga Urkizu

Iraola Zahar baserrikoa.

Pedro Galarraga Urkizu

Iraola Zahar baserrikoa.

Pilar Galarraga Urkizu (1931)



1931ko urriaren 6an jaio zen Errezilgo Iraola Zaharra baserrian. 8 seniderekin batera gerra ondorengo garaia ezagutu zituen. Auzoan baserri batean zuten eskolara joan zen eta han jaso zituen oinarrizko ikasketa bakarrak. Umetatik ezagutu zuen gogor lan egitea zer zen, gurasoei laguntzen. Gurasoak gazterik galdu zituen. Ezkondu ondoren, beste familia handi batera joan zen bizitzera, Urrestillako (Azpeitia) Altzaga baserrira. Santos Orbegozorekin ezkondu zen eta 5 seme-alaba izan zituen. Behi gazta egin eta hainbat herritako azokan saltzen lan egin zuten urteetan. Gerora, familia zaintzeko, gazta egiteari utzi eta esnea kooperatiba bati saltzen hasi ziren, lanez gainezka egin zutelako. 50 urte ingururekin Azpeitiko erretegi bateko sukaldean hasi zen lanean eta 13 urte inguru egin zituen bertan. Gaur egun alargunduta baserrian bizi da bere seme zaharrenaren familia ugariarekin batera.

Juana Garmendia Uzkudun (1924)



Errezilgo Iraolagoikoa baserrian jaio zen 1924an. Aita Iraolakoa eta ama Kurutzeta baserrikoa zituen. Zazpi urterekin hasi eta hamar urte ingurura arte Errezilgo eskolan ibili zen. Gaztea zela, auzoko Treku-Saletxe baserrian egon zen bizitzen neskame lanak eginez. Hamar urterekin, Azpeitian aritu zen neskame eta umezain lanetan, baita Landetako baserri batean ere. Gerra denbora gertutik ezagutu zuen. 23 urterekin ezkondu zen Errezilgo 'Loidisaletxe' bertsolari ezagunarekin, eta Loidisaletxe baserrian bizi da orduetik. Bederatzi seme-alaba izan zituen.

Inazio Goenaga Arzallus (1932)



Umansoro baserrian jaio zen 1932an. Gurasoak ere erreizildarrak zituen: aita Umansorokoa eta ama Egurbide baserrikoa. Zazpi anai-arreba izan ziren. Errezilen ibili zen eskolan 12 urtera arte. Baserriko bizimodua eraman izan duen arren, 'Uzin' lantegian ere aritu zen lanean. Soldadutza Iruñean egin zuen. Emaztearekin batera egin zitzaion elkarriketa.

ERZ-002 Hizlari ezezaguna

Errezilen jaioa, baserrian. Baserriko lanak eta kontuak aipatzen ditu gehienbat: eskola urruti zutela, osabarekin zuten harremana, Tolosako azokara joan-etorriak... Morroi lanetan aritu zen Usurbilgo baserri batean. Gero, Eibarren hasi zen lanean, eta bertara joan zen bizitzera. Hizkeran nabaritzen zaio Eibarko euskararen eragina.

Martzelino Ibarbia Ezama (1923-2013)



Maite Ibarguren Goiri (1955)

Inazio Irulegi Azpillaga

Abietabarrena baserrikoa.

Maria Isuzkiza Iraztorza (1935)



Aita Oiartzungoa eta ama Altzolakoa zituen. Aitak Aizarnako meatzean egiten zuen lan; baina, hura ixtean, Aizarna utzi eta Errezilgo Isasti baserrira jon zen bizitzera familia, Mariak 23 hilabete zituela. Berderatzi senidetan bosgarrena zen. Neskame ibilia da aurrena Elosiagako (Azpeitia) Zabala baserrian, eta, gero, Donostiako etxe batean. Donostian, bi urtez neskame ibili eta gero, Errezilera itzuli eta Loita baserriko Javier Aizpurrekin ezkondu zen.

Dominika Iturbe

Asteasun jaioa.

Manuel Labaka

Basabe Barrena baserrikoa.

Juanita Mendiola Galarraga (1940)



Juanita Ibarbi Bitarte baserrian jaio zen, Errezilgo Ibarbia bailaran, 11 senideko familian. Oso gazterik, 18 urterekin, Tolosara joan zen lan egitera, eta, handik lau urtera, Azpeitian ezkondu eta bertan jarri zen bizitzen. Etxekoandrea izan da lanbidez, eta lau alaba eta bi biloba izan ditu. Elkarriketatzaillea bere alaba da, Mari Jose Urkizu.

Koldobike Mujika Agirretxe (1951)



Errezilen jaioa, ama bertakoa zuen eta aita Olaberrikoa. Bi urte zituela familia Urrietara joan zen bizitzera. 12 urterekin interna bidali zuten Pasaiaiko moja-ikastetxe batera, 5 urterako. Ondoren, PREU egin zuen Donostiako Usandizaga institutuan eta Ekonomia ikasten hasi zen EUTGn. EMK alderdi politikoan sartuta, lan klandestinoetan hasi zen. Horrek Bilbora eraman zuen, eta gero baita ihes egin behar izatera ere, polizia atzetik zuelako. Madrilen egin zuen urtebete eta 1973tik 1976ra (amnistia eman zuten arte) Bartzelonan bizi izan zen, karnet faltsuarekin. Feminismoaren mugimenduan militatzen hasi zen han. Bueltan ere jarraitu zuen, Donostian: feminismoan eta LGBTBI mugimenduan. AEKn egin zuen lana hainbat urtean, euskara irakasten eta ondoren Gehitu elkarteko bozeramailea ere izan zen.

Maria Luisa Zabala (1925)

Migel Zabala Agirretxe

Maria Antonia Zinkunegi (1899)

Ignacia Zugasti Bigain (1940)



1940an jaio zen Errezilgo Igurtegi baserrian. 13 urtera arte Errezilgo eskolan ibili zen. Baserriko bizimodua eraman izan du beti. 19 urte zituela, Donostiara joan zen Azaldegijetexera neskame. Negu bat Tolosan pasa zuen neskame, josten ikasiz arratsaldetan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Oheak eta koltxoiak

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Uzkudun, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ERZ-014/019
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:31:19. **Bukatu**: 00:32:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberría, Eider

- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Oheak eta koltxoak nolakoak ziren eta zerez eginda zeuden azaltzen du. Egunero harrotzen zuten koltxoia. Mantarik ez zen izaten.

Transkripzioa

- Ta ohian, ohi haundi batzuk izaten zian, ba hoinbeste altu bai. Lastairia, zakua bezela, estilo honta, hemen josi, ta hola kuadrúa, ohia aiñekua, ta geo erdin hola zirrittu bat. Eta haren barrun, zorrua, artazorrua. Artazorru bi egun apartatu, ta hua sartu. Eta gaiñien koltxoia.

- Eta koltxoak zekin?

- Koltxoia illeekin.

- Ardi-illekin?

- Bai, ardi-illeekin koltxoia. Eta egunero ohia aldatu, ta zea, eskuk sartuta harrotzen gendun zea hua, zorro hua.

- Egunero harrotu behar izaten zan?

- Bai, esku sartu, errexa zan, oain zeatzia bezelaxe. Eta guk bere hartan guztiya, amona zanak "bai, ez dezue asko harrotu. Koltxoie bat'e ez dezue bueltatu" ta hola esaten zigun.

- Egunero lanea?

- Bai, egunero.

- Ta gaiñien'e koltxoie zan, mehexogua, ta bestiek bezelaxe zorruan sartu ta tapakin hua mantaik ta ez: hua, illiakin indako zea bat.

- Mantaik eta ez zan izaten?

- Bi lagun lo itteko oso txarra. Batekin ez beste bezela, beti bizkarra airin ta hola. Bai.

2. Politika

2.1. Entregatutako patatak eta orduko merkataritza

- **Hizlaria(k):** Garmendia Uzkudun, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ERZ-014/024
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:39:05. **Bukatu:** 00:40:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena:** Janaria entregatu egin behar izaten zuten herrian. Behin senarra konturatu zen entregatutako patatak usteldu egin zirela alondegian, eta alkateari bertsotan adierazi zion hori tabernan denen aurrean. Garai hartan, dendak eta tabernak bazeuden, eta zeintzuk ziren aipatzen du.

Transkripzioa

- Etxe, bai, esan, esan.

- Patatia're entregatu ber izeten zan, ta oin bezela patatia're asko ez zan

izeten.

- Noa entregatzen zenuen?

- Herrira.

- Herria?

- Bai. Ta batian herrira entregatu, ta herrin alondegi esaten zaion hola herriko puesto bat. Ta han dana usteldu patatak, ta nee gizonak jakin in zuan, ta herriko alkatiek tabernia zeukan, eta han bersotan kantatu harek, pobrieidi kendu ta alondegin danak usteldu ziela, ta bueno... bai.

- Errezillen esaten dezu taberna bat zala. Tabernak eta dendak bazien?

- Bai, dendak bazian, hiru're bazian dendak.

- Ze denda zian?

- Korreuenia.

- Ze saltzen zan hor?

- Hor letxeria esan detan hua're bai, hortxe zan, ta konbestible gauzia dana. Eta geo Eulenien'e konbestible' de bai, ta erropia're hola tarteka bai. Ta bestia Itxeberri; behian estankua're bai, ta dendie're bai, bazan. Karnizeri're bazan. Hoik bazien Errezillen. Bai.

- Ta tabernak'e bai esan dezu.

- Tabernak'e, bai, karnizero horrek tabernia euki zuan, eta "Bondei", ta panaderi bestia, panaderua, beak ogi itten zeen, hantxe Errezildik gora erteeran do, ta tabernia zan han'e. Hiru taberna're bazian.

3. Ohiturak eta bizimodua

3.1. Gaixotasuna eta sendagaiak

- **Hizlaria(k):** Garmendia Uzkudun, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ERZ-014/026
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:44:09. **Bukatu:** 00:45:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- **Laburpena:** Lehen gaixotasun arrunta zen pneumonia, eta etxean prestatzen ziren edozein gaixotasunen aurkako erremedioak sendabelarren bidez. Ez zuten botikarik edukitzen.

Transkripzioa

- Gaixotasunik eta izan zan ordun? Gaixotasunik, o goatzen zea hola...

- Nik ez...

- Oain gripe A hori aitzen da, ordun izaten zan gaixotasunen bat hola?

- Ez, bat'e ez, bat'e ez, gaixo. Pulmoni, oain neumonia do, pulmoni.

Gaiñentzin nik hola gaixotasunik gripeik eta zaniken ta, nik...

- Eta erremedioik etxen itten zana?

- Itxian, bai, paxmobelar mungia're bai. Hola zeozen zea baldin bazan. Ta gaiñentzian ez dakit, jarabe ta oliokin'e ematen zan. Hagiñeko miña baldin bazan, aspirinaikan'e iye gero arte ez zan.

- Osea ke ez zendun medikamentuik ez zendun eukitzen?

- Ez.

- Ezer'e?

- Ta hagiñeko miña baldin bazan, baratxuri jartzen genun hola exkumuturrien, ta kendu itten zun han. Burun lana akaso izengo da, baiña

kendu iten zun, ta majiña bat aldiz jartzen gendun. Ta eskumuturrak danak erre, baiña horkua kendu itten zun, ta harengatikan lo itten zan.

- Botikaik eta itten zenduen?
- Nik botikiak, ba.
- Ez?
- Paxmobelarra, ta beste belarren batzuk'e izengo zian ta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Egurra neurtzeko: kana (ERZ-008/001)

Metrorik ez zen garaian, kana deritzona erabili ohi zen neurketarako eta honen inguruan hitz egiten du. 36 ontzakoa da. Aizkora munduan asko erabilia izan da "ontza" neurria. Egurra neurtzeko bakarrik ezagutu izan du.

2. Neurriak: kordela, erraldeak, anegak... (ERZ-008/002)

Bizirik zegoen txahala neurtzeko kordela erabiltzen zen eta hildakoa neurtzeko, aldiz, erraldeak. Jose erraldeetan moldatzen da behi eta txahalak neurtzeko; txerri eta ardiak, aldiz, kilotan. Garia eta artoa anegatan neurtzen ziren. Beste zenbait neurri aipatzen ditu.

3. Karea eta txondorra nola egin (ERZ-008/003)

Karea eta txondorra nola egiten zituzten aipatzen du. Ikatzak diru asko ematen zuen orduan eta udaberri aldean ikatza egiten zuenak urtea pasatzeko adina ateratzen zuen. Kiloko 5 erreal ordaintzen zuten.

4. Lihoaren (linuaren) inguruko azalpenak (ERZ-008/004)

Josek ez zuen lihorik (linurik) ezagutu. Inguruko liho-putzuei buruz hitz egiten du, han beratzen zen lihoa. Bere etxean baziren lihoz egindako zenbait arropa.

5. Zilbor-hestea lotzeko, lihoa (linua) (ERZ-008/005)

Ume jaioberriei zilbor-hestea lotzeko lihozko (linuzko) trapua nahi izaten zuten; garbiagoa zen eta errazago sendatzen zuen. Inguruko baserrietako emakume askok Joseran amari eraman ohi zioten haurra bularra emateko.

6. Kanpotik medikua herrira (ERZ-008/006)

Haurrak normalean etxean jaiotzen ziren eta zailtasunen bat izanez gero, Elgoibarko mediku ospetsu bat ekartzen zuten herrira eta garestia izaten zen hari ordaindu beharrekoa.

7. Gaixoei laguntzen (ERZ-008/007)

Norbaitek min hartuz gero, eskailera batean koltxoia bota eta horrela mugitzen zuten gaixoa. Auzoko eta etxekoekin izandako pasadizoak kontatzen ditu; gaixo zeudenei nola lagundu izan zien.

8. Sasimedikuak (ERZ-008/008)

Errezilen eta inguruan baziren sasimedikuak; izendatu egiten ditu. Karlista gerrateetan ibili eta ondorenean kapitan egindakoak ziren.

9. Sendabelar eta erremedioak (ERZ-008/009)

Baserrian sendabelarrak erabiltzen zituzten. Ardo-oliba deituriko bat eta ardo egosia aipatzen ditu katarroarentzako sendagai.

10. Ezkontzen ez zen kapitainari isuna (ERZ-008/010)

Karlistadetan gerra galdu zutenak gero Francok kapitain egin zituen, izardunak deiturikoak. Ezkontzen ez ziren kapitainei, dirutan hainbesteko bat ordainarazten zieten. Honen inguruko kontuak.

11. Hainbat bertso (ERZ-009/001)

"Herniora jua da ekin otoitzean" hasten den bertso-sorta eta beste bertso batzuk abesten ditu.

12. Hainbat bertso (ERZ-009/003)

Hainbat bertso kantatzen ditu Antoniok.

13. Bertsoak (ERZ-009/004)

Asto bati buruzko bertsoak eta elizako kontuei buruzko bertsoak abesten ditu.

14. Andereñoa eta diziplina (ERZ-014/003)

Andereñoari buruz hitz egiten du: emakume gogorra zen, eta hori azaltzeko anekdota bat kontatzen du. Neguan, eskola berotzeko, berogailurako egurra etxetik eraman behar izaten zuten.

15. Dotrina eta komunioa (ERZ-014/004)

Eskolan, adin desberdinetako umeek elkarrekin ikasten zuten nola edo hala. Dotrina nahitaez ikasi behar izaten zuten. Apaiz bati oilasko eta arkumeak emanaz gero, komunioa ematen zuen.

16. Eskola eta zigorrak (ERZ-014/007)

Eskola non zegoen eta nolakoa zen azaltzen du. Zigorrak, besteak beste, jotzea eta bazkaririk gabe uztea izaten ziren.

17. Esnea saltzen (ERZ-014/009)

Abere ugari zituzten etxean: hala nola, behiak. Behietatik lortutako esnea Errezilgo esnetegiari saltzen zioten, 25 litroko marmitatan. Esnetegian ezin izaten zuten astoa lotuta utzi, kaka egiten baitzuen. 16 urte zituenean, esne-behiak ekarri zituzten, eta Azpeitian saltzen zuten esnea. Etxean ez zuten egiten gaztarik, beharrezkoagoa baitzen dirua.

18. Eskola eta baserriko lanak (ERZ-014/010)

Eskolan 10-12 urtera arte egon zen, eta erdietan ere ez zen joaten. Eskolan ez zuten uniformerik eraman behar, ahal zuten arropa baizik. Berak baserrian zer lan egiten zituen aipatzen du.

19. Garia gerra ostean (ERZ-014/011)

Garia eta artoa egiten zuten. Gerra garaian garia entregatu egin behar izaten zen, eta batere ez zeukatenez, estraperloan erosi, eta hala eman behar izan zuten. Babarruna eta patata ere entregatu egin behar izaten zen. Errotan nola ordaintzen zuten azaltzen du. Errotak non egoten ziren, eta zer izen zuten aipatzen du.

20. Gariak ematen zituen lanak (ERZ-014/013)

Gari gutxi izaten zuten, baina arto asko, lurra hobe baitzen artoa landatzeko. Garia egitea asko kostatzen zen, eta auzolanean egiten zuten: 6 gizon laian, eta 3 aitzurrean aritzen ziren. Laia zertan datzan azaltzen du. Gizon horientzako zer janari prestatzen zuten aipatzen du. Orduan gustura joaten ziren lanera janariaren truke.

21. Garia auzolanean ebakitzen (ERZ-014/014)

Garia auzolanean ebakitzen zuten. Garia ebakitzeko zer prozesu izaten zen azaltzen du.

22. Estraperloko garia eta neurriak (ERZ-014/015)

Garia estraperloan nondik erosten zuten azaltzen du. Garia, artoa eta babak neurtzeko zer neurri erabiltzen zituzten aipatzen du.

23. Baserriko sagarrak (ERZ-014/016)

Fruta-arbolak zituzten, eta Juanak Tolosako plazan saltzen zituen sagarrak. Zer sagar klase edukitzen zituzten aipatzen du. Sagardoa ere egiten zuten sagar haiekin.

24. Zer jaten zuten lehen (ERZ-014/017)

Eguneroko otorduetan sagardoa edaten zen. Otorduetan zer jaten zuten azaltzen du. Ogia etxean egiten zuten, irina baldin bazeukaten.

25. Etxeko garbiketa (ERZ-014/018)

Lehen etxeko lanak eta garbiketa egiteko nola moldatzen ziren azaltzen du. Atarian bi aska zeuzkaten: bata arropa jotzeko, eta bestea edateko. Etxeko izarak denak batera garbitzen zituzten, eta gainerakoa tokatzen zen moduan garbitzen zuten. Plantxa egiteko nola-hala moldatzen ziren. Eta lurra garbitzeko, erratza pasatzen zuten.

26. Errazionamendua (ERZ-014/020)

Gerra denboran 13 urte inguru zituen. Gosea ezagutu zuen, eta errazionamenduan zer janari jan behar izaten zuten aipatzen du. Idazkariari esker, familian senide ugari izateagatik, janari gehiago ematen zieten beraiei (baina ez beraiek bezalako gainerako familia guztiei).

27. Gerrako kontuak (ERZ-014/022)

Gerrako gosea, erreketekak, soldadutza, boluntarioak, hildakoak, gertakizunak eta abar aipatzen ditu. Beren etxean gehienak neskak zirenez, ez zuten gerrara joan behar izan. Baina bere senarra hiru urtez ibili zen soldadu. Orduan egin zituen lagunekin bizi guztian gorde zuen harremana.

28. Gerra garaiko giroa herrian (ERZ-014/023)

Herrian ez zen txikiziorik egon. Karlistak nagusitu ziren Errezilen, eta orduan zabaldu zen zurrumurrua zazpi gizon hilko zituztena. Azkenean ez zituzten gizonak hil, baina bai ume bat jolasean ari zela. Bonbarik ez zen ia egon. Baserrian kalean baino gose gutxiago pasa bazuten ere, janaria ez zuten soberan.

29. Emakumeak nola erditzen ziren (ERZ-014/025)

Herrian beti egon izan da medikua, eta lehen etxez etxe ibiltzen zen. Emakumeak haurdun zeudenean, erditzeko garaian bakarrik joaten ziren medikuarengana. Juanak ume bakarra izan du etxetik kanpo, eta orduan izandako gorabeherak kontatzen ditu. Juanaren amaren garaian, emakume ugari hil ziren erditzean, medikuaren hutsegiteren batengatik.

30. Sinesmena eta erlijioarekiko jarrera (ERZ-014/027)

Erramuarekin egindako gurutzeak jartzen zituzten etxean tximistatetik eta gaixotasunetatik babesteko. Ganadua saltzen zutenean, ur bedeinkatua botatzen zioten. Fedea baino, beldurra izaten zuten. Konfesatzera joaten ziren bakoitzean, zigorra izaten zuten: bezperatara joan behar izaten zuten. Bezperak zer ziren azaltzen du. Konfesatzera nahitaez joaten ziren hilean behin. Etxean ere errezatu egin behar izaten zuten, bai otorduetan, bai bestela ere. Duela urte gutxi utzi zion otorduetan errezatzeari.

31. Erromeriak eta bekatua (ERZ-014/028)

Erromerietara joaten ziren, baina oso gutxi. Nora joaten ziren azaltzen du. Etxerakoan mutilekin bazetozen, apaiza zain egoten zen eta sermoian aipatzen zuen gero. Erromerian dantza egiten zuten, baina dantza lotua bekatua zen. Neska batzuk kongregaziotik bota zituzten dantza lotuan egiteagatik.

32. Lana etxetik kanpo (ERZ-014/031)

Azpeitira joan zen umezain 16 urte zituela, eta hilean 100 pezeta ematen zizkioten. Hala ere, baserriko lanak ere egiten zituen han. Lan horrek iraun bitartean, bertan egon zen bizitzen. Gero esnetan ibili zen, eta enkarguak egiten zituen etxe batzuetarako. Garai horretan irabazitako dirua etxean gorde zuen, baina amak aurkitu egin zuen, eta ez zion itzuli.

33. Baserritik bizi (ERZ-020/002)

Gazte garaian, lurrak ematen zuenetik bizi ziren. Esne-behiak zituzten, eta esne pixka bat saldu ohi zuten "letxeriara". Txahalak ere hazten zituzten. Negu garaian, basoak inausi eta handik ateratako egurra saldu ohi zuten.

34. Eskolako oroitzapenak (ERZ-020/004)

10 urtera arte ibili zen eskolan. Irakurtzen, idazten eta kontuak egiten ikasi zuen. Adin ezberdinetako umeak elkarrekin ikasi ohi zuten, baina neskak eta mutilek aparte. Euskaraz ikasten zuten.

35. Dotrina (ERZ-020/005)

Dotrinara sarritan, egunero edo bi egunetik behin, joan behar izaten zen. Dotrina ere euskaraz ikasten zuten.

36. Umetako jolasak (ERZ-020/006)

Jose Inazioaren ume garaian ez zen frontoirik Errezilen (frontoia 1955-56an egina dela dio). Eliza azpiko zumitarran ibili ohi ziren pilotan. Harrapaketan, marruan, pilotan... jolastu ohi zuten. Larruzko pilota gutxi izaten zen, eta harizkoak egiten aritzen ziren etxean; puskatutako galtzerietako haria erabili ohi zuten horretarako. Umetan, ez du jostailurik izan, pilota besterik. Idazteko arbel bat ba omen zuen.

37. Eskolatik etxera, bazkaltzera; bideko entretenimenduak... (ERZ-020/007)

Baserritik eskolara 20 minutuko bidea zuten oinez. Ez zen kaminorik, eta goitik behera zuzen jaitsi ohi ziren. Etxera bueltan, beti izaten omen zen entretenimenduren bat: txori-habi bilatzen, marrubiak edota gereziak biltzen... Bazkaltzera etxera bueltatzen ziren; kaletik urrutik bizi ziren umeak Saletxean geratzen ziren bazkaltzen.

38. Saletxea (ERZ-020/008)

Kaletik urruti bizi ziren baserrietako umeak Etxeberrin, Saletxe-n... geratzen ziren bazkaltzen. Jose Inaziok eta Saletxean aldatu ohi zituzten oinetakoak elizara "txukunxeago" joateko.

39. Aitak jositako abarkak eta "derrama" (ERZ-020/009)

Gerra ondorenean, aitak etxean jositako abarkak erabaltzen zituzten. Ganaduren bat akabatzen zenean, auzoko ermandadean partitzen zen ganaduaren haragia eta larrua; banaketa horri "derrama" esan ohi zitzaion. Larru hori erabili ohi zen abarkak egiteko.

40. Belaunetarainoko galtzak eta artilezko galtzeriak (ERZ-020/010)

Mutil koskorretan, belaunetarainoko galtzak erabiltzen zituen. Galtzeriak, berriz, belaunperainokoak. Izeba batek egin ohi zituen artilezko galtzeriak.

41. Txapela, baitaituz geroztik (ERZ-020/011)

Jose Inaziok beti erabili izan du txapela: "uste dut bataiatu nintzenez gero hemen dabilkidala". Bere aitak ere jantzi ohi zuen. Gaur egun, banaka batzuk barri erabiltzen dute txapela. Elizara eta eskolara sartzeko, txapela kendu egin behar izaten zen. Apaizarekin eta auzoko edadeko batzuekin gurutzatuz gero, txapela kendu eta "ave maria purisima" esan behar izaten zuten.

42. Lagun artea eta Zelatungo erromeria (ERZ-020/012)

Beti izan da lagun arte zalea. Jaietan, bezperetara joan behar izaten zen, eta, gero, ahal zela jolasean ibili ohi zen kalean. Zelatunera joaten ohitura zuten, kamamila (mantzanilla) biltzeko aitzakian. Irailean, San Joan Txiki domezka hasita, erromeria izaten zen Zelatunen.

43. Etxeko jeneroarekin bizi (ERZ-020/013)

Baserriko lanak. Labore asko egiten zuten baserrian: artoa, baba, garia, patata, arbia... Soroa ahal zen dena gorritzen zuten. Patata egiten zen ahal bazen, leku txarretan. Udazkenean, garia egiten zuten, eta, hura kendutakoan, arbia. Udaberrian, berriz, artoa jarri ohi zuten garia eta arbia hazitako lurretan. Behien simaurra erabiltzen zuten soroa ongarritzeko.

44. Zazpi behi, gehienez (ERZ-020/014)

Krisiari buruzko gogoeta egiten du. Lehen, beti ganajatekoa egiten aritzen ziren. Zazpi behi izaten zituzten baserrian, gehienez. Txahalak hazten zituzten, eta behi-esnea ere saldu ohi zuten.

45. 13 urte zitueneko urtea... (ERZ-020/015)

Baserriko lanak. Eskulana asko izaten zen lehen. Negurako belarra, behientzat azpigarriak egiteko, bildu ohi zuten menditik. 13 urte egin zituen urtea anai zaharrenarekin segan pasatu zuela dio. Goizean, eguna argitzerako joaten ziren mendira gosari txikia eginda, eta, gero, beste gosaria eramaten zuten mendira. Mendian ere askotan bazkaltzen zuten, 'Saletxe'-an. Belarra ebakitzen anaia eta Jose Inazio ibiltzen ziren; belarra etxera eramateko, aita joan ohi zitzaien ganadu eta lerarekin.

46. Egurra inausteko ilargiari begiratu behar (ERZ-020/016)

Ilargia eta eguraldia kontuan izaten zuten baserriko lanetarako. Ilargiari gehien begiratzen zitzakion egurra inaustererakoan. Pagoa ilberrian inausten zuten, eta, haritza, berriz, ilbeheran. Jose Inazioren aitak "zorrontz begiratzen zien" ilargi kontuei zuhaitzak botatzerako garaian. Ilargiari begiratzear gain, neguan botatzen zituzten zuhaitzak; "izerdirik ez duten garaian, gaua luzea denean". Laborea egiteko, ostera, giroari begiratzen zitzaion gehiago.

47. Garia, artoa eta baba (ERZ-020/018)

Laborea. Garia egiteko lurra biratu egin behar izaten da: laiarekin edo goldearekin lurra bueltatu behar da ahal zen azpirenetik. Gero, lurra aitzurtu, hazia bota eta "aria" pasatzen behar da. Artoa egiteko, berriz, lurra "goxatzen" aritzen ziren. Artoa maiatzeko aurreneko egunetan egiten zen, eta, artoa ernetzen zenean, baba sartu ohi zen aitzurrarekin. Bareak baba jan egin ohi zuen, eta zaintzen aritu behar izaten zen. Karea erabiltzen zuten lurra ongarritzeko.

48. Karobiak eta karea (ERZ-020/019)

Ez zuen etxean karea egiten ezagutu. Inguruan baziren karobi zuloak. Kare gutxi erabiltzen zuten; bestelako ongarriak ere izaten ziren. Albizturren ba omen ziren martxan zeuden karobiak, baina ez zen hura erosteko dirurik izaten.

49. Arbia, abuztuaren 10etik aurrera (ERZ-020/020)

Laborea. Arbia abuztuan ereiten zen. Jose Inazioren aitak abuztuaren 10ean, San Lorentzo egunean, eman nahi izaten zion hasiera lanari. Arbi hazia ereitea: goiz partean hasi eta eguardira bitartean egin nahi izaten zuen aitak. Eguraldiari begiratzen zioten horretarako: arbia "lehorrean" egiten zen. Arbiari buruzko esaera bat aipatzen du: "arbia egin eta etxerakoan, langan, eskatu omen zuen arbiak euria".

50. Baratzea eta txahalak gizentzeko orea (ERZ-020/021)

Baratzerako lan gutxi izaten zen. Aza, kipula eta porrua izaten zuten, baina saltzeko behin ere ez. Txahalak gizentzeko, patata eta arbia artairin edo zai pixka batekin egositako orea prestatzen zuten.

51. Amarekin Tolosako azokara (ERZ-020/023)

Oilaskoak eta arrautzak saldu ohi zituzten. Lehen, hegazti asko izaten zen laborea (artoa) egiten zelako... Jose Inazioren amak tratura Tolosako azokara joateko joera zuen. Autobusean egiten zuen joan-etorria. Sagar boladan, seme-alabek ere lagundu ohi zioten Tolosara. Amari laguntzera joatea "erromeria" izaten zen: otarrak eramaten eta jartzen lagundu, gosari legea egin... Ilusioa izaten zuten amarekin joateko.

52. Azkoitiko 'Correo' eta 'Goiko Errota'-ko autobusa (ERZ-020/024)

Herrira saltzera. Tolosara autobusean joaten ziren. 'Correo' esaten zioten Azkoitiko autobusa eta Goiko Errotako autobusa, larunbatero Azpeititik Tolosara joaten zena, aipatzen ditu. 'Correo' autobusaren gainean otarrak eta jendea joan ohi zen.

53. Tolosako salmenta (ERZ-020/025)

Tolosako salmenta. Eguerdi partea, paper-lantegiko langileak ateratzen ziren garaia, izaten omen zen sagarra saltzeko une egokia: lehen ez baitzen gaur adina fruta aukera. Noiz edo noiz, saldu gabe gelditutako otarra bete sagar Tolosako dendaren batean utzi izan zutela kontatzen du, hurrengo astean saldu ahal izateko.

54. Azpeitira, sastrearengana (ERZ-020/026)

Enkarguak egitera Azpeitira joaten ziren. 'Correo'-n joan ohi ziren Azpeitira. Arropa berriren bat egin behar zutenean, Eloi sastrearengana joaten ziren. "Okasioren baterako" egin ohi zen trajea, kongregazioko zinta hartzeko...

55. Udaberrian, ziza biltzera (ERZ-020/028)

Udaberrian, gurasoak siesta egitera joaten zirenean, ziza bila joaten omen ziren Hernio aldera. Hernio aldeko parajeak ondo ezagutzen ditu: "han ikasi genuen oinez" dio.

56. 20 urterekin, Sarralle lantegira (ERZ-020/030)

Lanera hasi zen arte Azpeitira oso gutxi joaten omen zen. 20 urterekin, Azpeitiko Sarralle lantegian hasi zen lanean, kalderak egiten. Egunero joaten zen Azpeitira bizikletaz. Lantegi horretan bi urte egin zituen, soldadu joan zen arte. Harreman ona zuen nagusiekin; haien izenak aipatzen ditu. Lantegian lanean hasi zenean, baserriko lanetatik "librexeago" egoten omen zen; anaia zaharrena egoten zen etxean.

57. Soldadutza, Donostian; instrukzioak, "Carrascalen" (ERZ-020/031)

Soldadutzako oroitzapenak. 22 urterekin, soldadu joaten zen. Soldadutza Donostian egin zuen, eta instrukzioak, berriz "Carrascalen" (Artederreta, Nafarroa). "Egun bat horrela, txarra esateko, ez nuen pasa, eta gustura ere behin ere ez!". Soldadutza "arina" izan zela dio: 15 hilabetetatik bost etxean pasatu zituen permisoarekin, eta, Donostian zegoenean, asteburuan etxera bueltatu ohi zen.

58. Astigarraga eta Ergobiko sagardotegiak (ERZ-020/032)

Soldadutza garaiko kontuak. Donostian soldadu zegoela, Astigarraga eta Ergobi aldeko sagartegietara joaten omen ziren. Garai hartan, sagardotegi ugari izaten zen, eta "huskeri batean, bi txakur handiren" truke bost basokada sagardo ematen omen zien.

59. "Errezilen, sagar gehiegi izaten zen..." (ERZ-020/034)

Sagar dezente biltzen zuten, eta, gero, Agarretxe baserriko dolarean egiten zuten sagardoa. "Errezilen, sagar gehiegi izaten zen gu gazte ginen garaian". Sagar asko izaten zen urtean, saltzen lanak izaten omen ziren: herrian, Gasteizerako eta Eibarrerako kamionak antolatzen ziren.

60. Txerrikiak eta taloa (ERZ-020/036)

Gerra ondoreneko urteez hitz egiten du. Klean ez zen jatekorik; baserrian, berriz, jana izaten zen. Urtean, bi txerri hiltzen zituzten. Txerriki asko jaten zuten. Ez zen ogi nahikoa izaten, eta taloarekin "osatzen" ziren. Egunean hirutan erretzen omen zuten taloa. Errezilgo baserrietara kaleko mutil koskor asko joaten omen zen, mantentzen aldera, lanera.

61. Donostian, bi urte basolanean (ERZ-020/040)

Soldadutza bukatu ondoren, Donostian egin zituen bi urte Uliako 'Mendiola' baserrian lanean. Baserri horretan, basolanetan aritzen zen gehien bat, baina baratzean eta soroan ere izaten zen lana. Sagardoa bertan egiten zuten, eta merenderoa ere bazen.

62. Laia eta auzolana gustuko (ERZ-020/044)

Anaia zaharrena soldadu egon zen denboran, Jose Inaziok maiorazkoa eduki zuen, eta laian asko aritzen omen zen. Gustuko lana zuen hori, lagun artean egiten baitzen. Emakumeak aitzurrean, eta gizonezkoak laian aritzen ziren. Auzolanean dezente ibilitakoa da.

63. Odriozolatxoko bidea, auzolanean (ERZ-020/045)

Odriozolatxo baserri inguruko bidea Jose Inazio eta emaztea ezkondu ziren urtean hasi omen ziren egiten auzolanean. 1964an hasi ziren bidea egiten.

64. Herri ardoa eta auzolana (ERZ-020/046)

Auzolana. Errezilen, bideak konpontzen askotan ibilia da. Herritik hasi eta Zelatunera arteko bideak konpontzen ziren. Bakoitzak bere jatekoa eramaten zuen, eta ardoa herriak jartzen zuen. Urtero egiten zen auzolana izaten zen bide konponketa.

65. Bide konpontzea (ERZ-020/047)

Bide konponketari buruz hitz egiten du. Galtzada nola egiten den azaltzen du. Bailaran lurrak zituzten guztiei ematen zitzairen abisua bideak konpontzera joateko; gizonezkoak jarduten ziren lan horretan. Emakumeak beste auzolan batzuetara joan ohi ziren: baba biltzera, esaterako. Hernio ondotik edo sorotik ateratako harriak erabiltzen zituzten. Harria eta lurraz baliatzen ziren galtzadak egiteko. Urtean, hiru-lau arratsalde emango zituzten eginkizun horretan.

66. Bertsotarako zaletasuna, aitagandik jasoa (ERZ-020/049)

Bertsozale ikaragarria da. Aitagandik datorkio zaletasuna. Gauetan, artazuritzeko garaian, bertso zaharrak kantatzen aritzen omen zen aita ganbaran. Bertso zahar baten letra esaten du.

67. Ferian, bertsopaperak erosi aita (ERZ-020/050)

Feria egunetan, bertsopaperak salgai egoten omen ziren. Jose Inazioaren aita erosi ohi zituen. Etxean bertsopaperak izaten zituzten.

68. Iturzaetak errazionamenduari jarritako bertsoak (ERZ-020/056)

Korostieta baserriko Frantzisko Iturzaetak gerrari eta errazionamenduari jarritako bertsoak esaten ditu.

69. Errazionamendu garaiaz (ERZ-020/058)

Errazionamenduari buruz hitz egiten du. Aita errazionamenduko tabakoa erretzen omen zuen. Jose Inazioaren aita gutxi erre ohi zuen, eta sobratzen zitzaion tabakoa saldu egiten zuen. Ogi beltza nolakoa izaten zen deskribatzen du. "Boniattoa" (batata) ere errazionamenduan partitzen zuten, baina ez zuten hura jan nahi izaten.

70. Txerri-hiltzea (ERZ-020/059)

Txerri-hiltzeari buruz hitz egiten du. Auzoko gizon bat ibiltzen zen eginkizun horretan. Kontrabando garaian, txerriak ezkutuan hazten ziren, eta beldurra izaten zen inork salatzeke; txerria etxean erretakoak dira, baita mendian ere, sasia erretzeko itxurak egiten ari zirela. Olio falta izaten zen, eta babei urdai pusketa botatzen zien gozatzeko.

71. Gazi-kutxa (ERZ-020/060)

Txerriak eta haragia gatzetan igurtzita kutxa batean gordetzen zen. Urdaia ondo hoztuta sartu behar izaten zen gazi-kutxan, eta gaza jarri gero. Bi egunetik behin, txerriak buelta eman ohi zitzaion. Kutxaren gainean, harri handi batzuk jartzen ziren ondo estutzeko; gesala atera zedin. Amak egin ohi zuen lan hori.

72. Txorizoak (ERZ-020/061)

Txorizoak egin eta gero, nola kontserbatzen zituzten azaltzen du.

73. Bidanira, olio bila (ERZ-020/062)

Errazionamendu garaia buruz hitz egiten du. Errezildik baino jenero gehiago inguratu ohi zen Bidanitik. Olio bila joan ohi ziren hara.

74. Estrako irina (ERZ-020/063)

Taldea egiteko irin ona nahi izaten zen. Estrako irina gustatu ohi zitzaion Jose Inazioaren amari. Añitako itik astoa hartuta joan ohi ziren errotara, hiru orduko buelta izaten omen zen. Ganaduarentzako irina, berriz, Errezilgo kaleko Belamendiko errota elektrikotik hartu ohi zuten.

75. Errezilgo errotak (ERZ-020/064)

Garai batean, Errezilen ziren errotak izendatzen ditu: Arabe, Belamendi, Lizarreta Errota, Landarrain Errota, Erkizi, Zurrnzola, Kurutzeta eta Estra. Azpeitiko partean, Barrenola eta Gazteko errotak aipatzen ditu. Lehen, errotariek fama handia izan ohi zuten.

76. Gerraren hasieraren oroitzapenak (ERZ-031/003)

6-7 urterekin tropak zetoze eta arto artean gorde zen amarekin. Gerra garaiko oroitzapenak.

77. Gerra garaian kontrabandoa eta errazionamendua (ERZ-031/004)

Baserrian ez zuten horrenbeste gose pasa gerra garaian. Ogia izaten zen okerrera, errotak itxi egiten zituzten eta ezin garia eho. Kontrabandoa ezagutu zuela dio. Etxeko txahal haragia Beizamara eramaten zuen anaia gazteak zaldian; inork ez zuen espero ume batek zaldian haragia eramatea. Miseria zegoen. Errazionamenduan xaboia, olioia, azukrea eta tabakoa ematen zuten.

78. Aitak abarkak eta amak galtzerdiak egiten zituzten (ERZ-031/005)

Oinetakoak. Aitak behi larruarekin egiten zizkien abarkak etxean. Amak artilearekin galtzerdiak.

79. Urtebete edo biko lutoa (ERZ-031/006)

Luto asko erabili zutela umetan dio, familiakoarengatik urtebete edo bi arte.

80. Gerra ondorenean alemaniarrek etxean (ERZ-031/007)

Gerra ondorenean alemaniarrek anaiaren motorra konpontzera etorri zireneko kontuak. Euren etxean egon ziren gordeta 15 egunez .

81. Liburu bakarrarekin 20 ikasle (ERZ-031/009)

Bi edo hiru familiaren artean maistra ekarri zuten Donostiatik Antzelus baserrira eta harekin ibili ziren. Zakuak burutik sartuta joaten ziren eskolara, aterkirik ez zegoen eta. Elurra zenean, abarkekin. 11 urterekin utzi nuen. Logroñotik anaiak ekarritako liburu bakarra zuten 20 ikaslerentzat. "Pizarrilloa", berriz, errekatik ekarritako harriekin egindakoa.

82. Euskaraz egitearren, zigorra eskolan (ERZ-031/010)

Erdaraz gutxi ikasi zuten, irakasleak erdaraz bakarrik egin arren. Euskaraz eginez gero, zigor moduan "medalla" jartzen zien.

83. Errezildik Azpeitira, Altzaga baserrira (ERZ-031/011)

Zortzi senide ziren (Errezilen). Altzagan (Azpeitian), senarraren jaiotetxean, ere familia handia zen; 14 anai-arreba ziren. Aldaketa izan zen Errezildik beste baserrira joatea, baina maitasunagatik edozer egiten da.

84. Lanabesak, arropa... etxean egindakoak (ERZ-031/015)

Gauza asko egiten zituzten etxean: artilea amak, aita sokak, uztarriko lanabesak... Abarka sokak egiten zituen etxean aita. 7-8 urte inguru zituztela, arropa egiteko ere tela bakarra.

85. Garia ereitea eta orbel biltzea auzolanean (ERZ-031/016)

Garia egiteko, auzolanean: batzuk laiarekin, besteak aitzurrarekin eta besteak erein. Orbel biltzea ere auzolanean. "Besada" neurria eskuan sartzen zena.

86. Behi esnearekin gurina eta gazta egin eta saldu (ERZ-031/017)

Behiak bildu eta esne harekin gurina egiten jarduten zuten urte askoan. Gerora, gurinaren ordeztu, gazta egiten zuten. Gero, kalera saldu. Gurina nola egiten zuten: nola gorde, moldean sartu eta saldu.

87. Baserrian denetariko lanak egin behar (ERZ-031/018)

Lehenik etxeko lanak, oheak astindu eta gero baserriko lanak egiten zituzten. Arta jorra, arbi jorra. Dena eskuz. Neguan orbela biltzera.

88. Azokara gazta, arrautzak eta sagarrak saltzera (ERZ-031/019)

Gurina egiteari utzi ziotenean, gazta egiten hasi ziren. Azokara joaten ziren gazta, arrautzak edo sagarrak saltzera astoarekin. Batzuetan Tolosara, Eibarrera edo Azpeitira autobusean, sagarrak saltzera. Tolosara larunbatetan. Sagar asko zenean, Eibarrera.

89. Txerriak, ardiak eta oiloak hazi eta saldu (ERZ-031/020)

Txerrikumeak hazten zituztenean, bi-hiru egunez zaintzen geratzen ziren txerritegian, jaiotzen zirenean. "Odolkiak ordainetan" esaera. Ardiak eta oiloak ere hazten zituzten, saltzeko. Txerri-hiltzeko kontuak nola izaten ziren. Kurriak ordu laurdenez entzun beharra.

90. Etxera ura ekarri zutenekoa (ERZ-031/022)

Ura baserrira amaren garaian ekarri omen zuten (1927 urte aldera), etxe atarira. Berak beti ezagutu ditu argia eta ura etxean.

91. Umetatik irratia etxean (ERZ-031/024)

Irratia umetatik ezagutu zuen etxean. Aita gaixo zegoen auzoko mutiko bat besoetan hartuta eramaten zuen etxera, irratia entzuterako.

92. `Urtain´en borrokaldia telebistan (ERZ-031/026)

Inguruetan ez zen telebista asko, baina euren etxean bai. `Urtain´en boxeo-borrokaldia ikustera auzoko jendea joan zen; sukaldea beteta egon zen.

93. Lehen autoa: Plymouth markakoa (ERZ-031/028)

Izan zuten lehen autoa Plymouth markakoa zen eta Donostiatik ekarri zuten.

94. Inguruetako erromeriak eta festak (ERZ-031/030)

Bere garaiko erromeriak Potzubentan edo Zurruntzolan izaten ziren. Jaiak Goiatzen, Bidanian... Normalean dantza soltean jarduten zuten. Zelatunen "agarrauan" dantza egiteagatik elizako kongregazioan arazoak. Senarra Potzubentako erromerian ezagutu zuen. Nire anaia Enrikek aurretik ezagutzen zuten.

95. Bi-hiru eguneko ezteiak eta arreoak (ERZ-031/032)

Berak ez zuen lihoa jotzen ezagutu, baina amaren arreoak ezagutu zuen lihoz egina. Berak ere arreoak eraman zuen ezkondu zenean; amak emandakoak. Gurdian joateko ohitura, hotsa atereaz. Ezteien ohitura: bi hiru eguneko ezteiak izan ohi ziren. Errezilgo Artauntza baserrian bi eguneko ezteia. Dultzaina eta danbor jotzaileak ganbaran.

96. Ekzema zotalarekin sendatu; ebakia egin zuenekoa (ERZ-031/035)

18 urterekin ekzema bat atera zitzaion eskuan eta hiru urtez hura sendatu ezinda ibili zen. Azkenean auzoko emakume batek sendatu zion, zotala erabilita. 12 urte zituela, segarekin hankan ebakia egin eta Elgoibarren pasa zituen bi hilabete, etxera joan gabe. Orduan errepiderik ere ez zegoen.

97. Tolosara, `Petrikilo´rengana, saiheitsak sendatzera (ERZ-031/036)

Hezurren bat puskatutakoan, `Petrikilo´rengana (Tolosan eta inguruan zegoen sasi medikua). Bera behin joan zen harengana, saiheitsak apurtuta, eta nola sendatu zuen azaltzen du.

98. Asun-ura katarroarentzat; beste sendabelar batzuk (ERZ-031/037)

Ez duela sendabelar asko hartu dio. Baina garai batean asun-ura hartzen zuten, katarroa izanez gero. Enplastorik ez zuen erabiltzen, baina berbena belarra edo pasmo belarra gordeta izaten zituen badaezpada, eztarriko mina zenerako, gargarak egiteko.

99. Umeak jaio zireneko bizipenak (ERZ-031/039)

Umeetatik hiru etxean izan nituen, beste biak ospitalean. Berarentzat gogorrena umeak etxean utzi eta ospitalera joatea izan omen zen. Seme-alaba bakoitza jaio zeneko esperientzia. Baserrian lanean aritzen zen azken unera arte.

100. Umeak astoan hartuta, txertoa ipintzera (ERZ-031/040)

Kotxerik ez zegoenez, umeak astoan hartuta eramaten zituzten Urrestillara, txertoa ipintzera.

101. Garai bateko tifusa eta izurriteak (ERZ-031/041)

Gogoan du anaiak Azpeitian tifusa zegoela esaten ziola eta poltsikoetan baratxuriak hartuta joaten zela. Koronabirusarena bezalako izurrite gehiago egon izan zirela entzuna du; hala ere, honek hildako asko eragin dituela dio.

102. Gaztak egin eta azoketan saltzen (ERZ-031/043)

Iraola baserrian gazta egiten zuten, baita berak alde egin eta gero ere. Altzagan hasieran negutik udaberrira egiten zituzten gaztak, ardi eta behi esnea nahastuta. Gerora hasi ziren urte osoan egiten. Azpeitia, Zarautz, Eibar eta Ermuko azoketan ibilitakoa da gaztak saltzen. Gerora, esnea saltzen hasi ziren.

103. Senarra basoan lanean, dirua irabazteko (ERZ-031/044)

Santos senarrak etxetik kanpora lan egiten zuen, basoan, zerbait irabazteko. Belarra ebakitzen ere bai. Bizimodu gogorra izan zuen.

104. Jatetxean, sukaldari lanean (ERZ-031/045)

50 urterekin jatetxe batean (Azpeitiko Sagasti Zahar jatetxea) hasi zen lanean, sukaldean laguntzen. 13 urtez jardun zuen bertan.

105. Bi jaunartze eta gero kongregaziora hilean behin (ERZ-031/047)

Jaunartzea 7 urterekin egin zuen. Egun arrunt bat izan zen, ospakizun gabea. Bigarren jaunartzeari "Zinta" esaten zioten. Hura egin eta gero, kongregaziora joan behar hilean behin. Batzuetan eguna argitu aurretik ere bai lasto suziarekin edo farolarekin. Pazkoako kontuak zer ziren, urtean behin txartela kolore ezberdinekoa; dotrinaren azterketa zen.

106. Kanpai klaseak (ERZ-031/048)

Elizako kanpai kontuak. Bezperaren deia, mezetarako deia... Hil kanpaiak; gizonezkoa edo emakumezkoa zen bereizten zuten bera baino nagusiagoak zirenek.

107. Txakurak eliza barruraino jarraitu zionekoa (ERZ-031/049)

Elizara baserritik Urrestillara nola jaisten ziren eta etxeko txakurak nola jarraitu zion eliza barruraino.

108. Elizakoak eta lursailen bedeinkapena (ERZ-031/050)

Jendea etxean oso gaixorik zegoenean, apaiza nola etortzen zen elizakoak ematera. Apaizek San Juan inguruan lursailak bedeinkatzen zituzten eta trukean arrautzak eta baserriko oilaskoak edo gazta ematen zitzaien.

109. Arantzazura, bederatziurrena egitera (ERZ-031/051)

Azken urteetan Arantzazura joaten da irailean, bederatziurrena egitera. Opor moduan hartzen duela dio. Zer egiten duen han.

110. Garai bateko txanponak (ERZ-031/053)

Ezagutu zituen garai bateko txanponak: txakur txikia, txakur handia, zilarrak. Erreala, erreal bikoa... Pezeta bateko eta biko papera. Bost pezetakoa.

111. Bertsolariak baserrietako ospakizunetan (ERZ-031/054)

Bertsolariak nola izaten ziren lehen baserri inguruan eta auzoan. Banketea, karakol jatea... Ezteiak. Gaur egun baino gutxiago kobratuko zutela dio. Bertso paperik ez, baina kantuak bai ikasi zituen.

112. Janari aldetik aldaketa Gabonetan (ERZ-031/055)

Lehengo Gabonak familian ospatzen zituzten. Gabon eskea nola izaten zen. Janari aldetik aldaketa asko egon da. Ardi zaharra edo oilo zaharra, konpota, turroia.

113. San Juan sua pizteko ohiturarik ez (ERZ-031/056)

Errezilen, bere jaiotetxean, ez zuten San Juan sua pizteko ohiturarik. Urrestillan, berriz, urtero pizten zuten.

114. Eguraldiaren inguruko kontuak; tenporak (ERZ-031/057)

Ohera joatean, ez zuten jakiten biharamunean zer eguraldi egingo zuen. Gaur egun aurretik jakiten da dena. Garai batean elurte handiagoak izaten ziren irudipena du. Tenporatan badu fedea.

115. Logela elurrez bete zitzaienekoa (ERZ-031/059)

Etxeko logelako leihoa irekita utzi eta gauerako elurrez bete zen eguna. Lehen elur gehiago egiten zuen.

116. Trumoia datorrenean, kandela eta erramua (ERZ-031/060)

Tximistari beldur handia dio, bere bizitzan bi aldiz jo baitu. Trumoia entzutean, kandela piztu edo erramua sutara botatzen du.

117. Umea besoetan hil zitzaionekoa (ERZ-031/061)

Errezilen bizi zela, auzoko ume bat nola hil zitzaion besoetan. Jada arnasa makalduta zuela, mojek estampa bat jarri zioten bularrean umeari: edo sendatu zedila, edo zerura joan zedila. Eta une horretantxe hil zen.

118. Ilea moztu zuenetik, beti motza (ERZ-031/062)

Lehen ile luzea izaten zuen beti, baina behin moztuz gero, ez zuen utzi berriz luzatzen. Ilea gogorra zuen. Ez duela ilea inoiz tindatu dio.

119. Genero berdintasunaren inguruko iritzia (ERZ-031/063)

Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren inguruko iritzia.

120. Begoña Amonarriz aktibista (ERZ-039/002)

Feminismoaren instituzionalismoaren lehenengo bilera Zarautzen izan zen. Donostiako EAJ-ko Begoña Amonarriz zinegotziak mugimendu feministari asko lagundu zion. Batzoki askotan ateak ixten zizkioten.

121. Stonewall ikonoa (ERZ-039/005)

Stonewall-en gertatutakoa ikono bat bilakatu zen LGTBI mugimenduaren barruan. 1969ko ekainaren 28an gertatu zen eta urtero egun horretan LGBTI-ren manifestazioa ospatzen da.

122. EHGAM elkarte (ERZ-039/006)

1977an EHGAM elkarte sortu zen. Donostian Lesbianen Komisioko kidea zen Koldobike eta EHGAM-ek antolatzen zituen ekitaldi askotan parte hartzen zuten: manifestazioak, bizikletazko martxak... Gehienak gizonezkoak ziren. Emakumezkoak talde feministetan ibiltzen ziren.

123. Antisorgailuen legalizazioa (ERZ-039/008)

Bartzelonatik bueltatu zenean, antisorgailuak legeztatzeke manifestazio bat egin zuten. Antisorgailuen legeztapena iraultza bat izan zen emakumeentzat. Legalizatu aurretik, mediku batzuek klandestinoki errezetak egiten zituzten.

124. Planning familiarrak eta heziketa sexuala (ERZ-039/009)

Beste herri batzuetan zeuden planning familiarrak Donostian zabaltzeko ahaleginek huts egin zuten. Antisorgailuak errezetatzeaz gain, kalitatezko sexu heziketa eskaintzea zen helburu nagusia.

125. Emakumeek sexualitate ez zeukaten ustea (ERZ-039/010)

"Alfer eta Gaizkileen Legea" ("Ley de Vagos y Maleantes") zer zen eta ematen zituzten zigorrak. Lege horretan emakumeak ez zeuden identifikatuta, sexualitate ez izango ez balute bezala.

126. Francisen hilketa (ERZ-039/011)

1979ko ekainean Apolo diskotekan Francis hil zuten, trabestia izateagatik. Boulevardrean egindako manifestazioa.

127. HIESA, "minbizia arrosa"; estigmatizazioa (ERZ-039/013)

HIESA-ri "minbizia arrosa" deitzen zitzaion. Gizonezko homosexualen artean eta drogazaleen artean zegoen zabalduen. HIESAren estigmatizazioari buruz, mugimendu homosexualaren mezua munduari: ez dago arriskuko pertsonarik, arriskuko praktikak baizik. Antisorgailuen erabileraren zabalkundea.

128. Manifestazioak ikustera morbo bila (ERZ-039/014)

Ekainak 28ko lehenengo LGTBQ+ manifestazioetan, duintasuna aldarrikatzera joaten ziren arren espaloiak morboagatik bultzaturiko jendeaz gainezka zeuden, zirku bat balitz bezala.

129. Lesbianak zirela aitortzeko beldurrak (ERZ-039/015)

Donostiako Cristina Enean lesbianei bizkarrez ateratako argazkiaren inguruko gogoeta. Feminista zela aitortzeko ez du inoiz arazorik izan baina lesbianak zirela aitortzeko zailtasun gehiago izan zituzten eta askotan ez zuten aurpegia ematen. Beraietako batek bakarrik ematen zuen aurpegia.

130. "Eta zu zergatik zara heterosexuala" leloa (ERZ-039/017)

1989ko "Eta zu zergatik zara heterosexuala?" leloa, Axun Urbietaren eskuetatik sortu zen. Heterosexualitatearen hausnarketa.

131. GEHITU elkarte (ERZ-039/018)

1999an GEHITU elkarte sortu zen. Festa ikaragarriak egiten zituzten Jareñoko lantegi zaharrea. Beste itxura batekin sortutako elkarte zen. EHGAM eta GEHITUK helburu eta ildo ezberdinak jorratu dituzte.

132. Ezkontza parekotasunaren eskubidearengatik borroka (ERZ-039/021)

Ezkontza parekotasunaren eskubideari buruz hitz egiten du. Sentsibilizazio-lana.

133. Ezkontza parekotasunaren legea (ERZ-039/022)

2005eko ekainaren 30ean ezkontza parekotasunaren legea onartu zen eta bikote askoren egoerak asko hobetu ziren.

134. GEHITUren laguntza psikologikoa (ERZ-039/023)

GEHITUn lan egiten hasi zen 2004an, komunikabide arloan. "Infasis" eremuan laguntza psikologikoa ematen zen. Urtero jardunaldiak antolatzen ziren: antisorgailuak, adopzioa...

135. Homosexualen taberna giroa (ERZ-039/024)

80. hamarkadan modan jarri ziren pub eta tabernak, "La Cuesta del Culo" kalean. Homosexualak bertan elkartzen ziren harremantzeko eta ligatzeko. Marina kaleko Trigo taberna, San Martin kaleko Txirula...

136. Homosexualitatearen penalizazioa (ERZ-039/025)

Bilboko "La Ochoa"-ri buruz hitz egiten du. Molde asko apurtu dituen pertsonaia publikoa izan da. Zigortuta egon zen. Homosexualitatea gaixotasun gisa ikusia zegoen eta "sendatu" egin behar zen.

137. Homosexualitatea ezkutatzeke ezkontzak (ERZ-039/026)

Homofobia leku guztietan egon da, pertsonaren barnean ere. Homosexualak zirela onartzeko beldurra. Pertsona asko ezkondu egiten zen homosexuala zela ezkutatzeke

138. Plazandreok alderdi politikoa (ERZ-039/028)

1995ean mugimendu feminista hauteskundeetara aurkeztu zen, Plazandreok alderdiarekin. Hainbat bozka lortu zituzten baina ez zuten zinegotzirik lortu.

139. Emakumearen eskubide legalak trantsizioarekin lortu ziren (ERZ-039/032)

80. hamarkadara arte feminismotik lortutako garaipen batzuk. Haurtzaindegia. Konstituzioaren aurretik, emakumeak hainbat gauza egiteko eta lortzeko senarraren baimena behar zuen. Emakumearen eskubide legalak trantsizioarekin lortu ziren.

140. Trantsizioarekin lortutako aurrerapenak: dibortzioa, antisorgailuak... (ERZ-039/034)

1978ra arte emakumearen adulterioa zigortua egon zen. Antisorgailuaren legezapena aldarrikatzeko manifestazioak. 1981ean dibortzioaren legea eta homosexualitatearen despenalizazioa onartu ziren.

141. 1985eko abortuaren legea huskeria bat izan zen (ERZ-039/036)

Abortuaren legea baldintza askorekin onartu zen eta mugimendu feministarentzat huskeria bat zen. Gaur egun abortuaren eskubidea kolokan dago mundu guztian.

142. Generoaren kontrako indarkeria; tratu txarrak (ERZ-039/038)

Tratu txarrei eta bortxaketei buruzko hausnarketa egiten du. Ez da behar haina salatu, gaur egun ere gertatzen delako.

143. Feminismoa ez dago instituzioetan (ERZ-039/039)

Feminismoaren olatuei buruzko hausnarketa egiten du, eta helburuei buruz hitz egitea hitz egin behar dela uste du, zeharkako gai bat bezala ulertuz. Nahiz eta feminismoa kalean gero eta gehiago ikusten den, instituzioetan ez du lekurik.

144. Tanborradan emakumeek ezin zuten parte hartu (ERZ-039/040)

Kresala mugimenduak lortu zuen emakumeak Donostiako danborradan ateratzea. Gaztelubide elkarte gastronomikoko gizon batek egindako kritikak.

145. Elkarte gastronomikoetan emakumeak debekatuta (ERZ-039/041)

Emakume zinegotziek ezin ziren Gaztelubide elkarte gastronomikora afaltzera joan. Zinemagile suediar emakume batek Donostian danborra jaso zuen baina ez zioten utzi elkartera sartzen ere ez.

146. OTAN-en kontrako emakumeen kanpaina (ERZ-039/043)

OTAN-en kontrako kanpaina bat sortu zuten Aizan, PCE eta mugimendu feministako emakumeek. Aizan eta PCE-ren barruan, emakumeen taldeak zeuden. Ekintza itsasontzi batean egin zuten Kontxatik, eta ondoren manifestazio bat.

147. OTANen kontrako emakumeen ekimena Eibarren (ERZ-039/044)

OTAN-en kontrako ekimen handi bat egin zuten Eibarren eta "tren antimilitarista" batean joan ziren Donostiatik eta beste herri batzuetatik Eibarrera. Armak egiten zituzten fabrika bat goitik behera artileekin estali zuten protesta gisa.

148. Greenham Common-eko emakumeen kanpamendu antimilitarista (ERZ-039/048)

Ingalaterran urtebetez Greenham Common-eko kanpamendu antimilitaristako emakumeak eredutzat hartzen zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com